



# ORRI-MARKATZAILE SOLIDARIOAK

15. edizioa 2023

## FITXA DIDAKTIKOA



Save the  
Children



### Izena

**Nargis**

### Adina

**10 urte**

### Herrialdea

**Afganistan**

### Ametsa

**Mediku izan nahi dut**

## EZAGUTU ZERTXOBAIT GEHIAGO NARGISEN BIZITZA

“Nire ametsa handitan medikua izatea da” Nargisek, munduko beste neskatxa askoren moduan, bata zuria jantzi eta behar duenari laguntzea eta gaixo daudenak sendatu eta berriz ere osasuntsu eta zoriontsu egon daitezen amesten du. Amets horiek egia bihur zitezkeen, baina gerra piztu zen etxeko atarian, eta guztia jausi egin zen.

Nargisek 10 urte ditu eta duela hiru urtera arte familiarekin bizi zen Afganistanen; egia da ez zela oso familia aberatsa, baina elkarri laguntzen zioten, Nargisen aitak lan egiten zuen eta bera eskolara joan zitekeen... Baina mundu beste toki askotan hain erraza den ekintza hori ia ezinezko bihurtu zen Nargisentzat eta bere herrialdeko neska guztientzat.

Etxetik ihes egin zuten eta zalantzez josiriko bidaia bati ekin zioten. Bizilagun batzuen etxera joan behar izan zuten, probintziaz aldatu behar izan zuten eta, azkenik, Kabuleko eremu batera iritsi ziren eta etxe bat alokatu zuten. Familiaren egoerak ez du onera egin talibanek kontrola hartu eta ekonomiak porrot egin zuenetik, lan prekario eta ezegonkorrekin egunero eskuratzen duten diru apurra janaria ordaintzeko erabiltzen dute, prezioek asko egin baitute gora.

Egoera zail horrekin, Nargisen amak bere alabaren ametsa partekatzen du, nahiz eta emakumearen lekua etxean dagoela defendatzen zuen bere amak berak; uste irmoa du hezkuntza funtsezkoa dela emakumeen beren eskubideak defendatzeko, lan on bat aurkitu eta familia mantendu ahal izateko hezkuntza jasotzeko, eta beraz, asko eskertzen du bere alabak Save the Children-ek martxan jarritako komunitate-eskoletara joan ahal izatea; gainera, bizitza berrira egokitu eta bizi izan zuen traumatik berreskuratze laguntza ere jasotzen du bertan.

“Eskola joateak ongi eta seguruago sentiarazten lagundu dit. Eta orain oinarrizko matematikak egin ditzaket eta irakurri eta idatzi egin dezaket. Horrelaxe laguntzen ditu eskolak. Herrialdean gerra badago, gurasoek leku seguru batera eraman behar dituzte seme-alabak, haiek eskolara

joan ahal izateko.” Nargisen ametsa geroz eta gertuago dago eta eskolan jarraituta ingurune seguru batean ikasteko prozesuan jarraitzen du.

Afganistaneko egoera ezegonkorra izan da duela hamarkada batzuetatik hona. Barne-tentsioen eta atzerriko potentzien elkarren aurkako eraginen ondorioz, herritarrek gerrak, erasoak eta erradikalismoak jasan behar izan dituzte. Save the Children 1976tik ari da Afganistanen komunitateak laguntzen eta neska-mutilen eskubideak babesten, baita gatazka-garaietan eta erregimen-aldaketako aldietan ere. Erakundeak programak dauzka 10 probintzian, eta GKE laguntzaileekin lan egiten du beste hiru probintzian. 2021eko abuztuan krisia areagotu zenetik, Save the Children-en erantzuna handitu egin da geroz eta gehiago beharrean dauden neska-mutilen kopuruari erantzuteko, osasunari, elikadura-segurtasunari, nutrizioari, haurren babesari eta hezkuntzari buruzko programak eskainiz.

Proposatzen dizkizuegun **jarduera hauen bidez**, egun batetik bestera bizitza aldatu zaien eta berriz ere lehen bezain seguru noiz izango diren ez dakitela babesgabe dauden milaka neska-mutilen egoerari buruz sentsibilizatu nahi ditugu zuen ikasleak.

Jarduera horiek egin eta gero, gelan atera diren ideiekin eta ikasleek egindako hausnarketekin **apain ditzakezue orri-markatzaileak**. Orri-markatzaileak pertsonalizatzeko modua lagungarria izan daiteke orri-markatzaileetako protagonisten antzeko neska-mutilei buruz gelan ikusi dutena familiako kideei kontatzeko.



## HELBURUAK

- Irakurmena sustatzea proposatutako bizitza-historien bidez
- Inguratzen dituzten ingurunea ezagutzea, beste ingurune batzuekin konparatuta.
- Ikerketa-tresnak sustatzea
- Irakurmena eta idazmena bultzatzea, proposamen didaktikoen bidez.
- Elkartasunaren balioa sustatu eta garatzea ezagutzaren bidez, eta praktikara eramatea eguneroko ekintzetan.

Proposamen hauek ikasleen ikasketa-mailaren arabera egiteko pentsatu dira, baina zuen taldera hoberen egokitzeko moduan molda ditzakezue.

## HAUR-HEZKUNTZA

Nargis bizi den tokian dauden fauna eta landaredia, gure artean ditugun faunatik eta landareditik oso bestelakoa da. Ziurrenik, gelako leihotik begiratuz gero, ikusten duzun paisaia oso desberdina da koloreei, eraikinei eta abarri dagokionez. Ezagut dezagun pixka bat gehiago herrialde honetan bizi diren haurren ingurunea. Gure orriaren erdian gure gelako leihotik ikusten duguna marraztuko dugu: zuhaitzak daude? nolako forma dute? nolako orriak dituzte? eraikinak daude? oso altuak dira? dendak daude? Eta animaliak, txoririk ikusten da? nolakoak? Eta libre dabilen katurik edo txakurrik badago? edo uhalarekin lotuta doaz?

Afganistango hirietan dauden eskoletako leihotatik ikusten den paisaia oso bestelakoa izan daiteke. Hiriaren irudiren bat proiektatuko dugu aldea ikusi eta eraikinen materialetatik datorren kolore okreen aldea, kalean txakur gehiago bizi direla, klima lehorragoa izanik landare gutxiago dagoela eta abar ikusteko.

## LEHEN HEZKUNTZA



Nargisek eskolara joaten jarraitu nahi du, badakielako bere ametsak betetzeko modu bakarra dela, ikasten eta hezten jarraitu ahal izateko. Eskola gure lagunekin jolasteko toki da, baita irakasleek behar dugun guztia irakasten diguten tokia ere. Gure eskola eta Nargisen eskola konparatuko ditugu, eta zein alde eta desberdintasun dituzten ikusiko dugu.

Nire eskola	Bere eskola

Aldeak espazioan nola nabariagoak diren hausnartuko dugu; adibidez, geletan ikasle gehiago daude edo mahaiak eta aulkiak zaharkituagoak daude edo ez dago ekipo elektronikorik (ordenagailuak edo arbel digitalik); eta nola antzekotasunek ezagutza garrantzitsuen ikaskuntzarekin zerikusia duten, irakasleen laguntza jasotzen duten zerbait ulertzen ez dutenean, jolasteko lagunak dituzten eta abar.

## BIGARREN HEZKUNTZA

Afganistanen garapenak ibilbide irregular bat izan du; etengabeko hazkuntza gerarazi dituzten inbasioak eta gerrak izan dituzte, eta duela urtebete baino gehiago erregimen talibana boterera iristean, emakumeek eskuratutako eskubideak nabarmen atzera egin dute. Ikertu ardura-postuak izan dituzten (epaileak, medikuak, irakasleak, politikariak) eta orain lana galdu duten Afganistaneko emakumeei buruz. Orain eskolara joan ezin zuten neskatilak eta nerabeak ezin izango dira amesten zuten profesional bihurtu, eta beraz, hezkuntzak eta hezkuntza jasotzeko eskubideak uden garrantziari buruz hausnartuko dugu, neskek beren etorkizuna libre aukeratzen dutela bermatzeko. Ikasitakoa gainerako ikaskideekin parteka dezakezue horma-irudi edo aurkezpen bat eginda.



# ESAN BAI BAKEARI

**Badakigu zein garrantzitsua den gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarrizketan eta enpatian oinarritutako kultura bat bultzatzeko heztea.** Save the Children-en ekintzaren protagonista diren, mundua aldatzeko mobilizatzen diren eta elkartasunean, errespetuan eta bakearen kulturaren hezi diren ikasleengan sinesten du.

**Mobiliza zaituz ikasleekin  
apuntatu zaren ekintzak eginez.  
Ikastetxeen uholde bat behar dugu  
BAKEARI BAI ozen oihukatzen.**



**MUGITZEN BAZARA,  
MUNDUA ERE MUGITU EGITEN DA**



**Save the Children**